

ELA eta CIGen arteko topaketa

Bilbo, 2019ko azaroaren 18a

Gaur Bilbon bilera dute CIGek eta ELAk, hurrenez hurren Galizako eta Euskal Herriko konfederazio sindikal nagusiak. Halako topaketak ohikoak dira harreman historikoa duten bi sindikatuon artean, zeintzuk lankidetzarako aukerak landu izan dituzten, estatu mailan nahiz nazioartekoan.

Gaurko bileran gure nazioetan eta estatuan bizi dugun egoera laboral, sozial eta politikoaren sakon analizatu nahi izan dugu. Zehatzago, zuzenean eragiten diguten hainbat gairi buruzko diagnostikoa eta proposamena partekatzeko asmoa dugu:

1. Bi nazioetan ikusten ari gara lan baldintzak, eta bide batez bizimodu guztia, zeharo hondatzen ari direla, gobernuak austeritate politikak ezartzen tematzen direlako; gainera, gobernu autonomikoak ere bat datoz agenda neoliberal horrekin. Esaterako, oso larriak dira Galizako emigrazio eta langabeziaren hazkunde datuak, industriaren krisiarekin batera, edota Euskal Herrian pobreak izan duen gorakada. Hain zuzen, atetan dagoen krisiak kezkatzen gaitu, baita arazo honen aurreran politikak ezer ez egiteak.
2. Estaturik gabeko sindikatu garen aldetik, bat gatoz ere espainiar estatuaren krisiak eragindako kezka dela eta (ez baita lurralde-krisia, ezta krisi katalana ere); gehiengo politikoaren errezetak politika errepresibo eta antidemokratikoak besterik ez dira. Eta eskuin muturraren gorakada bezain larria, edo larriagoa, jotzen dugu indar politiko gehienak autoritarismorantz lerratzea.
3. Horregatik, eta espainiar gobernu osatzera doan honetan, CIGek eta ELAk hau aldarrikatzen dute:
 - a. Agenda benetan soziala: pentsio eta lan erreformei atzera eragitea, eta genero berdintasuna, soldaten eta pentsioen eros-ahalmena berreskuratzea, gizarte-babesa zein eskubide sozialak hedatzeko aukera emango duten politikak.
 - b. Lan baldintzak nork bere herrialdean negoziatzeko eskubidea aitortzea; beraz, lan harremanen estatalizazioa, eta horrekin batera prekaritatea eta soldata kaskarrak hedatzea dakarten negoziazio kolektiboaren erreformak indargabetu beharra dago.
 - c. Demokratizatze agenda zabala; honen baitan berehala indargabetu behar da mozal legea eta Zigor Kodearen 315.3 artikulua, zeinak mugimendu sozial eta sindikala, greba, protesta eta aldarrikapena kriminalizaten duen.
 - d. Gatazka nazionalak bideratzeko -adibidez, Kataluniaren eta Estatuaren arteko lehentasuna politikari ematea; horretarako politikaren judizializazioa bertan behera utzi behar da, preso politikoak askatu eta autodeterminazio eskubidea aitortu.
4. CIG eta ELA ziur daude soilik honelako agenda zabal eta ausart batek geldiaraziko duela neofaxismoaren gorakadari, European eta espainiar Estatuan.
5. Badakigu sindikatuok ere demokratizazioari dagokionez eginkizun garrantzitsua dugula. Sinesten dugu zibilizatzeko baliagarria dela borroka, sindikalismo borrokalaria, langile-klasearen bultzada antolatu eta militantea. Ziur gaude elkarriketa eta kontzertazio soziala ez direla errealitate larri hau bideratzeko modua; aitzitik, jendea otzandu eta injustizien aurrean desmobilizatzea da helburua. Uste dugu garaiotan borroka asko (pentsiodunak, feminismoa, mugimendu klimatikoa, lan gatazka eta grebak...) indartu izanak jendartearen parterik onena hauspotzen dutela, garrantzia ematen baitiete erreferentzia solidarioei, kapitalak bakartzea eta indibidualizazioa sustatzen duen artean.